



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

PROPOSAMENA ...



1.SAIOA

GURASOAK PARROKIAN

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



1. Helburua

- Ebanjelioaren proposamena biziz betetako proposamena dela gurasoei ikusten lagundu.

2. Helburu bereziak

- Bakoitzaren beharrez eta bizitzako bilaketez jabetu.
- Zentzuzko kristau proposamena antzeman.



Idea nagusiak

- Bidea gure seme eta alabekin batera egiteko aukera.
- Nazareteko Jesus ezagutzeko aukera.
- Kristau elkartearen ezagutzeko aukera.




Ezinbesteko lagungarriak

- Txorimaloaren marrazkia (I. eranskina)
- Pertsonen marrazkia (II. Eranskina)
- Otoitza (III. Eranskina)

Hartu astia saioaren jardunbidea ulertzeko eta, aldeztu aurretik, behar izango dugun guztia prestatzeko.

SAIOA GURASOENTZAT PARROKIAN



Saiorako gida

Laguntzailearentzat...

Saioa, bost unetan banatuko dugu:

- o1. Unea: Agurra eta aurkezpena. 1. urratsa. (10 min.)
- o2. Unea: Gaiaren garapena. 2-3 urratsak (20 min.)
- o3. Unea: Bilketa eta laburpena. 4. urratsa (5 min.)
- o4. Unea: Kurtsoa antolatzeko proposamena. 5. urratsa (15 min.)



Lehenengo unea. Agurra eta aurkezpena



1. Urratsa. Laguntzaileak taldea agurtu eta partaideei ongi etorria adieraziko die kurtso berriaren hasieran:

- Berriz elkartu gara udaren ostean. Seme eta alabekin bidea egiten jarraitzeko eta kurtso honetan Nazareteko Jesus hobeto ezagutzeko aukera eman nahi dizuegu.
- Hainbat lagunek dio Jesusekin buruz buru elkartu izanak beren bizitzan zentzuz bete dituela, baina, dena dela, ezin daiteke esan esperientzia horretan gorabeherarik izan ez denik.
- Zerbaiten edo norbaitengan sinesteak badu arriskurik, gure ziurtasunak alde batera utzi eta bilatzera bultzatzen gaituelako erantzunen bat aurkitu nahirik.
- Baina prozesu honetan, zorionez, ez gaude bakarrik, beste batzuekin batera ari gara Jainkoaren bila eta Nazareteko Jesusek berak gizatzen gaitu.



Bigarren unea: Gaiaren garapena



2. Urratsa. Teologo entzutetsu batek dioenez, *"sinestea ez da jakitea. Sinestea urte osoa izatea, fedea izatea da, eta baita itxaroten eta onartzen jakitea. Gure erabaki esanguratsu gehienak ez dira jakitearen¹ gainean eratzen, sinestearen gainean baizik"*¹. Bizitzan hartzen ditugun erabaki nagusiak ziurtasunetik ez ezik senetik hartzen ditugula onartzeak bertigoa ematen du. Hala ere, benetan ezer ez dugula kontrolpean konturatzeak bilatzera bultzatzen gaitu. Erantzunak bilatzen ditugu gure barruan sortzen diren galdera nagusientzat eta hain zuzen ere, hortxe, Nazareteko Jesusen Jainkoaren bizitza, mezua eta Berarengan sinestea bidean aurrera egiteko baliagarri izango dugun iparrorratz bihur daiteke.

Geldialdia egin eta pentsatu... Laguntzaileak azalduko die ondorengo ariketa banaka egingo dugula eta ez dela taldean batera jarriko. I. eranskina banatuko diegu.

¹ Torralba, F., *Ya a pesar de todo creer*, Madrid, PPC, 2018

- Geure buruari begiratuko diogu,... Gure bizitzaren, gure bilaketen,... oroimena egingo dugu... Ikusi eta entzun egingo dugu: U2, "Still haven't found what i'm lookin For"² (gaztelaniazko azpituluekin).
 - Zoriontasuna sentiarazten diguten gauzak idatziko ditugu...
 - Zalantza edo beldurra eragiten digun zerbait idatziko dugu...
 - Erantzunik gabeko galderaren bat idatziko dugu...



**Bideoa ikusteko,
klik egin irudian**



3. urratsa. Beste urrats bat eman eta gaur bildu garen leku honetan eta Nazaretoko Jesus hobeto ezagutzeko proposamenean pentsatuko dugu. Laguntzaileak azalduko die ondorengo ariketa banaka egingo dugula eta ez dela taldean batera jarriko. II. eranskina banatuko diegu.

- Nor da Nazaretoko Jesus niretzat?
- Nor da Nazaretoko Jesus nire familiarentzat?



Hirugarren unea. Bilketa eta laburpena



4. urratsa. Begiak itxiko ditugu...

- Zorioneko egiten gaituzten gauzak gogoratuko ditugu eta Jainkoari eskerrak emango dizkiogu guzti horiengatik.
- Zalantza edo beldurra eragiten diguten gauzak gogoratuko ditugu eta sendotasuna eskatuko diogu Jainkoari horiei aurre egiteko.
- Erantzunik gabeko galderak gogoratuko ditugu eta erantzuna bilatzen laguntzeko eskatuko diogu Jainkoari.
- Begiak ireki eta denok batera esango dugu... (III. eranskina)

**Mendirik altuenak igo ditut, landa zabalak zeharkatu ditut,
bakarrik zeurekin egoteko.
Lasterka egin dut, arrastaka ibili naiz,
hiri honetako harresietan gora egin dut, bakarrik zeurekin egoteko.
Baina oraindik ez dut bilatzen ari naizena aurkitu.
Lokarriak apurtu zenituen, kateak askatu,
gurutzea eta nire lotsa eraman zenituen.
Baina oraindik ez dut bilatzen ari naizena aurkitu.
Lagundu, Jauna, aurki zaitzagula.**



Laugarren unea. Kurtsoa antolatzeko proposamena




5. urratsa. Lehenik eta behin, laguntzaileak kurtso honetan gurasoekin saioetan landuko ditugun gaiak aurkeztuko digu:

- Ezagutu nahi duzu Jesus?
- Jesus on eginez bizi izan zen.
- Jesus berri on da guztiontzat.
- Jesusen heriotza.
- Jesusen berpizkundera.
- Jesusek bere Aita Jainkoa agertzera ematen digu.
- Jesusek Jainko Aitarekin hitz egiten irakasten digu eta Harekin hitz egiteko adore ematen.


Bigarrenik, kurtsoko antolamenduaren inguruko berri emango da: egutegia, familia eukaristiak, ospakizun bereziak, lagungarriak, e.a.

² <https://www.youtube.com/watch?v=9cEJrxFDmgQ>

I. eranskina



II. eranskina



III. eranskina

**Mendirik altuenak igo ditut,
landa zabalak zeharkatu ditut,
bakarrik zeurekin egoteko.**

**Lasterka egin dut, arrastaka ibili naiz,
hiri honetako harresietan gora egin dut,
bakarrik zeurekin egoteko.
Baina oraindik ez dut bilatzen ari naizena aurkitu.**

**Lokarriak apurtu zenituen, kateak askatu,
gurutzea eta nire lotsa eraman zenituen.
Baina oraindik ez dut bilatzen ari naizena aurkitu.**

Lagundu, Jauna, aurki zaitzagula.